ZUIN
INFORMAZIO AGENDA
LAUDIOKO UDALA
2021

12/1

INFO-AGENDA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO
2021




# EUSKARAREN EGUNA













# Laudiok Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldiak antolatu ditu

Laudioko Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, abenduaren 3an ospatzen den Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat egiteko egitarau zabala prestatu du. Egitarauak, euskara protagonista izango duten hamar ekitaldi baino gehiago jasoko ditu asteburu osoan zehar. Magia, bertsoak, zinema, musika edo kaleko antzerkia izango dituzte laudioarrek abenduaren 3tik 5era. "Ekitaldi guztien ardatza euskara izango da. Gure bizitzan beti presente dagoen eta Laudioko Udalak esparru eta leku guztietara eramaten duen hizkuntza", nabarmendu du Ander Añibarro, Laudioko alkateak.
Aiarako Euskararen Eguneko festara joan nahi dutenak larunbatean, hilaren 4an, ondoan dagoen Luiandora hurbildu beharko dira.

## Abenduak 3, ostirala

**12:00** Adierazpen instituzionalaren irakurketa Alkatearen eskutik. Jarraian, irakaskuntza zentroen adierazpenak: Fabian Legorburu, Ikastola, La Milagrosa, Lamuza, Latiorro, Laudio Institutua, Laudioalde eskola, AEK euskaltegia eta Udal Euskaltegia.
**12:15** Adierazpenekin tartekatuta, Arloteen laguntzarekin, "Araban bagare", "Kontrapas" eta "Txoria txori" kantuak abestuko dira.
**12:30** Arloteak taldeak girotuko dute herriko herrigunea, euskal abestiekin.
**17:30** Oliver magoa. Erdi Aroko ipuin magikoa ikuskizuna. Aldai plaza.
**19:00** Bertsolariak Laudioalde eskolan (3 euro): Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Miren Amuriza eta Jon Maia. Gai-jartzailea: Izar Mendiguren.
**20:00** Akordeoi eta piano kontzertua Ezust Duo taldearen eskutik (Garazi Navas eta Ignacio Arakistain). Elizan
**20:30** Kaleko antzerkia. Panoli Kabareta ikuskizuna Ganso konpainiaren eskutik. Zubiko-Kurajo gunean. Euririk izanez gero, Aldai plazan.
**20:30-22:00** trikitia herriguneko kaleetatik.

## Abenduak 4, larunbata

Goizean: Luiaondon egingo da eskualdeko euskararen jaia.
**18:00** Umeentzako disko-jaia. Aldai plaza.
**18:30** Urtzen Telmo Esnalen dokumentala. Laudioalde, 3 euro.
**18:30** Luze edo motz nagusientzako binakako elkarrizketa. Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai. Genero kontuak umore bihurtuta. Lamuza parkeko Kasinoan. Doakoa.
**20:00-22:30** ORKRESTA elektrotxaranga, herriguneko kaleetatik.

## Abenduak 5, igandea

**11:30** Bisita antzeztua Lamuza parkearen historia ezagutzeko.
**17:30** "Tximinoen izarra" umeentzako euskarazko pelikula. 3 euro, Laudioalde.

# Laudio programa diversos actos para celebrar el Día Internacional del Euskera

El Ayuntamiento de Laudio, a través del Servicio de Euskera, ha elaborado un amplio programa de actividades para sumarse a la celebración del Día Internacional del Euskera, que se festeja cada 3 de diciembre. El programa, que contempla más de una decena de actos con el euskara como protagonista, se desarrollará durante todo el fin de semana. Magia, bertsos, cine, música o teatro de calle es lo que les espera a los y las laudioarras desde el día 3 y hasta el 5 de diciembre. "Todas las actividades irán de la mano del euskera. La lengua que siempre está presente en nuestras vidas y que el Consistorio de Laudio lleva a todos los ámbitos y lugares", ha destacado Ander Añibarro, alcalde de la localidad.
Las personas que deseen asistir a la fiesta del Día del Euskara de Ayala tendrán que moverse el sábado día 4 a la localidad vecina de Luiando.

## Viernes 3 de diciembre

**12:00** Lectura de la declaración institucional a cargo del Alcalde. Y a continuación, declaraciones de los centros de enseñanza: Fabián Legorburu, Ikastola, La Milagrosa, Lamuza, Latiorro, Instituto Llodio, Escuela Llodioalde, Euskaltegi AEK y Euskaltegi Municipal.
**12:15** De manera intercalada en las declaraciones, y con la colaboración de Arlotes, se cantarán las canciones "Araban bagare", "Kontrapas" y "Txoria txori".
**12:30** El grupo Arloteak amenizará el centro de la localidad con canciones vascas.
**17:30** Mago Oliver. Espectáculo "Cuento mágico medieval". Plaza Aldai.
**19:00** Bertsolaris en la escuela Laudioalde (3 euros): Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Miren Amuriza, y Jon Maia. Moderadora: Izar Mendiguren.
**20:00** Concierto de piano y acordeón a cargo del grupo Ezust Duo (con Garazi Navas e Ignacio Arakistain). En la iglesia
**20:30** Teatro de calle. Espectáculo "Panoli Kabaret" a cargo de la compañía Ganso. En la zona de Zubiko-Kurajo. En caso de lluvia, en la plaza Aldai.
**20:30 - 22:00** Trikitixa por las calles del casco urbano.

## Sábado 4 de diciembre

Por la mañana: la fiesta del Día del Euskara de Ayala, en Luiaondo
**18:00** Disco-fiesta infantil. Plaza Aldai.
**18:30** Documental "Urtzen", de Telmo Esnal. Laudioalde 3 euros.
**18:30** "Largo o corto", encuentro de diálogo para parejas mayores. Dirigido por Mirari Martiarena e Idoia Torregarai. Cuestiones de género convertidas en humor. En el Casino del parque Lamuza. Gratuito.
**20:00 - 22:30** Electrotxaranga ORKRESTA por las calles del casco urbano.

## Domingo 5 de diciembre

**11:30** Visita teatralizada para conocer la historia del parque de Lamuza.
**17:30** "Tximinoen izarra", película infantil en euskara. Laudioalde 3 euros.

# GAZTERIA/ JUVENTUD

## SEXADAZU

Laudioko Udalak 14 eta 30 urte bitarteko gazteentzako doako udal zerbitzu berria du. Sexologia arloko profesionalek zuzentzen duten, eta zure zalantzak argitzen eta sexualitateari buruzko egiazko informazioa aurkitzen lagunduko dizun Sexadazu programa da.

Gazteekin harremanetan bazaude (hezkuntzan lan egiten baduzu edo aita, ama... bazara) ere kontsulta diezagukezu ! Interesa dutenek dagoeneko jarri daitezke harremanetan sexadazu@laudio.eus helbidera idatziz edo 689 11 69 37 telefono-zenbakira deituz. Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko beste modu bat Udalaren webgunean dagoen inprimakia betetzea izango da.

## SEXADAZU

El Ayuntamiento de Laudio cuenta desde hace unos meses con un nuevo servicio municipal, gratuito, para jóvenes de entre 14 y 30 años. Se trata de Sexadazu, un programa dirigido por profesionales de la sexología que te orientarán y te ayudarán a aclarar tus dudas y también a encontrar información veraz sobre sexualidad.

Si estás en contacto con jóvenes (trabajas en educación o eres padre, madre...), también puedes consultarnos! Las personas que estén interesadas ya pueden ponerse en contacto escribiendo a sexadazu@laudio.eus o llamando por teléfono al 689 11 69 37. También se podrá contactar con el servicio rellenando el formulario existente en la página web del Ayuntamiento.

SEXADAZU
Sexu-aholkularitza



## Udal liburutegia asteburu osoan egongo da zabalik ikasgela gisa, etenik gabeko ordutegiarekin

Larunbat arratsaldeetan eta igandeetan ez dira erabilgarri egongo liburuen mailegu, kudeaketa eta itzulketa zerbitzuak

Aurrerantzean, hala nahi duten laudioarrek udal liburutegia ikasgela gisa erabili ahal izango dute asteburu osoan. Udalak gune horren ordutegia zabaltzea erabaki du eta, ondorioz, erabiltzaileek larunbat eta igandeetan 09:00etatik 21:00etara, etenik gabe, erabili ahal izango dute zerbitzu hori.

## La biblioteca municipal permanecerá abierta como aula de estudio todo el fin de semana en horario ininterrumpido

**Los sábados por la tarde y los domingos el servicio de préstamo, gestión y devolución de libros no estará disponible**

De ahora en adelante, los y las laudioarras que así lo deseen podrán hacer uso de la biblioteca municipal como aula de estudios durante todo el fin de semana. El Ayuntamiento ha decidido ampliar el horario del citado espacio, así que los y las usuarias tendrán a su disposición este servicio en horario ininterrumpido de 09:00 a 21:00 horas los sábados y domingos.



# GIZARTEA / SOCIEDAD



## Esku-hartze eta arkeologia-kontrola San Antonio elur-zuloan

Ermualdeko ondare-multzoaren barruan, eta San Antonio (Santa Apolonia) baselizatik gertu, antzinako elur-zulo bat dago. Eta egokitu nahi da, hondatu ez dadin eta beste ondare-baliabide bat bezala erakutsi eta ustiatzeko.
Berez, neguan elurra metatzeko erabiltzen zen leize bat da. Gero, udan kontsumitzen zen, beroak gehien estutzen zuenean. Udalerrian ditugun elur-zulo bietako bat da.
Edozein esku-hartze egin aurretik, eta udalak izendatutako aholku-batzorde zientifikoaren gomendioei jarraituz (2019), barrunbea garbitu eta hustu egin da baina, aldi berean, arkeologia-talde batek ikuskatu du, lanen jarraipena egiteko. Hori funtsezkoa da elementuari buruzko informazio zehatza lortzeko, nola interpretatu eta ondoren birgaitu jakiteko eta, era berean, kalteak saihesteko bertan lan egiten den bitartean.
Esku-hartze hau, udaleko obra eta kultura ondarerako zerbitzu unitateek gauzatu dute, elkarlanean, eta Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntza bat ere jaso da ikerketa horretarako.

## Intervención y control arqueológico en la nevera de San Antonio

Dentro del conjunto patrimonial de Ermualde, y próxima a la ermita de San Antonio (Santa Apolonia), existe una antigua nevera que se pretende acondicionar para evitar que su deterioro avance, así como para mostrarlo y explotarlo como un recurso patrimonial más.
En realidad, es una sima en la que se almacenaba la nieve en invierno. Posteriormente se consumía en verano, cuando el calor más apretaba. Es una de las dos neveras que disponemos en el municipio.
Previa a cualquier intervención, y siguiendo las recomendaciones del comité científico asesor designado por el Ayuntamiento (2019), se ha procedido a la limpieza y vaciado de la cavidad pero, a su vez, procediendo a ello bajo la supervisión de un equipo de arqueología, para hacer un seguimiento de las labores. Ello es clave para lograr información precisa sobre el elemento, para saber cómo interpretarlo y posteriormente rehabilitarlo y para, asimismo, evitar deterioros en el conjunto mientras se trabaja en él.
Esta intervención ha sido llevada a cabo conjuntamente por las unidades de servicios municipales de Obras y Patrimonio cultural, y se ha contado con una subvención de la Diputación Foral de Álava para dicha investigación.

## Batekin, Arabako Boluntariotzaren Agentzia, Laudion instalatu da

Laudiokoa bazara eta boluntariotza egin nahi baduzu, gogoan hartu! Batekin, Arabako Boluntariotzaren Agentzia, udaletxeko bigarren solairuan instalatu da dagoeneko. Boluntariotza proiektu honek eskualdean eskaintzen dituen aukerei buruzko xehetasun gehiago jakin nahi dutenak udaletxera hurbildu daitezke hilabete bakoitzeko lehen eta hirugarren asteazkenetan. Batekinekin harremanetan jartzeko: Instagram eta Facebook bidez (@batekin.voluntariado), bere webgunean (www.batekin.org), aupa@batekin.org helbidera mezu elektroniko bat idatziz edo 688 763 095 telefono-zenbakira deituz.

## Batekin, la Agencia de voluntariado de Álava, se instala en Laudio

Si eres de Laudio y te interesa hacer voluntariado, ¡toma nota! Batekin, la Agencia de Voluntariado de Álava, ya se ha instalado en la segunda planta del Ayuntamiento. Las personas que deseen conocer más detalles acerca de las diferentes posibilidades que ofrece este proyecto de voluntariado en la comarca ya pueden acercarse al Consistorio el primer y tercer miércoles de cada mes. Para contactar con Batekin: a través de Instagram y Facebook (@batekin.voluntariado), en su página web (www.batekin.org), escribiendo un mail a aupa@batekin.org o llamando por teléfono al 688 763 095.

## Edateko uraren udal zerbitzua emateagatiko tasa

Laudioko Udalak onartu du aurtengo hirugarren hirulekoan edateko uraren udal zerbitzua emateagatiko tasaren kontribuzioari dagokion errolda. Ordaintzeko epea, borondatezko aldian, 2022ko urtarrilaren 17ra arte luzatuko da, biak barne. Helbideratuta zeuden errezibuak azaroaren 22an kobratu ziren.
Tasa horren ordainketa helbideratuta ez dutenek, Kutxabankeko, Laboral Kutxako eta Nafarroako Caja Ruraleko bulegoetan ordaindu ahal izango dute, ohiko ordutegian, kutxatik etxera bidalitako ordain-agiria aurkeztuz. Ordainagiririk jaso ez bada edo jasotakoa galdu bada, ordainagiriaren ale bikoiztua eskatu ahal izango da Uren Udal Zerbitzuaren Bulegoan, Izoria kalea, 4 - behea eskuina, helbidean.
Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren, ordaindu barik geratu diren ordainagiriak derrigorrezko behartze-bidezko kobrantza prozeduran sartuko dira era automatikoan eta ordaindu beharreko zenbatekoari, legeetan erabakitako gainkarguak, berandutza-korrituak eta, hala dagokionean, sor litezkeen berandutzarengatiko eta behartze-bidearengatiko kostuak gehitu beharko zaizkio.

## Tasa de prestación de servicio municipal de agua potable

El Ayuntamiento de Laudio ha aprobado el padrón contributivo referente a la tasa por prestación del servicio municipal de suministro de agua potable del tercer trimestre del presente ejercicio. El plazo recaudatorio, en período voluntario, se extenderá hasta el día 17 de enero de 2022, inclusive.
Los y las contribuyentes que no tengan domiciliado esta tasa, los y las que sí ya la abonaron el pasado 22 de noviembre, podrán efectuar el pago del mismo en las sucursales de Kutxabank, Laboral Kutxa y Caja Rural de Navarra, en horario de apertura de dichas entidades bancarias, contra la presentación del recibo único que recibirá en su domicilio por envío de la entidad bancaria encargada del cobro. En caso de extravío o no recepción del recibo, se emitirá un ejemplar duplicado en la oficina del Servicio Municipal de Aguas, sita en la calle Izoria nº 4 – bajo dcha.
Vencido el plazo de recaudación en período voluntario, las cuotas no satisfechas incurrirán automáticamente en el procedimiento de apremio, devengando los recargos legalmente establecidos y, en su caso, los intereses de demora y las costas que se produzcan.



## Gabonetako tailerrak haur eta helduentzat

> **GABONETAKO APAINGARRIEN TAILERRA HELDUENTZAT.** Zuhaitzean zintzilikatzeko nahiz dekorazio legez erabiltzeko elementuak. Material naturalak eta birziklatuak erabiliko dira. Tailerrak hiru saio izango ditu: abenduak 4,11 eta 18, 11:30etatik 13:30etara Zubiko Etxean. 12 urtetik gorakoentzat. Musutruk.

> **GABONETAKO APAINGARRIEN TAILERRA UMEENTZAT.** Egun bakoitzean, 2 orduko tailer bat egingo dira abenduaren 27an, 28an, 29an eta 30ean, 11:00tatik 13:00era Zubiko Etxean. Egun bat baino gehiagorako eman ahalko da izena, baina haur guztiek gutxienez egun batean parte hartu ahal izatea lehenetsiko da. Izena emateko epea abenduaren 15era arte izango da, eta onartuen zerrendak abenduaren 17an argitaratuko dira. Tailerra 4-12 urte bitarteko umeentzat zuzenduta dago. Musutruk.

> **TXALAPARTA TAILERRA.** Txalaparta modu atsegin eta hezitzailean ezagutaraziko da. Arreta berezia jarriko zaio pertsonen parte-hartzeari, adimenak ezarri ohi dituen mugak hausteko gai izan daitezen. Jarduerak: txalaparta tradizionala (ohol bakarrekoa), 4 oholeko txalaparta modernoa eta harriparta (harrizko txalaparta). Tailerrak hiru saio izango ditu: abenduaren 27an, 28an eta 29an, 18:00etatik 20:00etara Zubiko Etxean. Izena emateko epea abenduaren 15era izango da, eta onartuen zerrendak abenduaren 17an argitaratuko dira. 12 urtetik gorakoentzat zuzenduta. Musutruk.

> **DJ TAILERRA**. Musika elektronikoaren mundurako sarrera egingo da. Jarduerak: musika, erritmoari eta harmoniari buruzko oinarrizko kontzeptuak, soinu-ekipamenduen eta kontrolagailuen oinarrizko konfigurazioa; nahasketaren hastapenak. Tailerra abenduaren 30ean egingo da, 18:00etatik 20:00etara Zubiko Etxean. Izena emateko epea abenduaren 15era izango da, eta onartuen zerrendak abenduaren 17an argitaratuko dira. 12 urtetik gorakoentzat zuzenduta. Musutruk.

## Talleres de navidad para adultos y niños y niñas

> **TALLER DE ADORNOS NAVIDEÑOS PARA ADULTOS.** Se realizarán distintos adornos navideños tanto para colgar en el árbol como para usar a modo de elementos decorativos. Se utilizarán materiales naturales y reciclados. El taller constará de tres sesiones los días 4,11 y 18 de diciembre, de 11:30 a 13:30 horas, en Zubiko Etxea. La actividad, gratuita, está dirigida a mayores de 12 años.

> **TALLER DE ADORNOS NAVIDEÑOS PARA NIÑOS.** Se realizarán talleres diarios de 2 horas los días 27, 28, 29 y 30 de diciembre de 11:00 a 13:00 horas en Zubiko Etxea. Se podrá hacer la inscripción para varios días, pero se priorizará que cada niño/a pueda participar al menos un día. El plazo de inscripción finalizará el 15 de diciembre y las listas de personas admitidas se publicarán el día 17. La actividad, gratuita, está dirigida a los niños y niñas de entre 4 y 12 años.

> **TALLER DE TXALAPARTA.** Se dará a conocer la txalaparta de forma amena y educativa. Se prestará especial atención a la participación de las personas, al objeto de que sean capaces de romper los límites que la mente suele imponer. Actividades: txalaparta tradicional (de una sola tabla), txalaparta moderna (de 4 tablas) y harriparta txalaparta, de piedra. El taller consta de tres sesiones que se realizarán los días 27, 28 y 29 de diciembre, de 18:00 a 20:00 horas en Zubiko Etxea. El plazo de inscripción finalizará el 15 de diciembre y las listas de personas admitidas se publicarán el día 17. La actividad, gratuita, está dirigida a mayores de 12 años.

> **TALLER DE DJ.** Introducción a la música electrónica. Actividades: conceptos básicos sobre la música, ritmo y armonía, configuración básica de equipos de sonido y controladoras, introducción a la mezcla. El taller se realizará el 30 de diciembre de 18:00 a 20:00 horas en Zubiko Etxea. El plazo de inscripción finalizará el 15 de diciembre y las listas de personas admitidas se publicarán el día 17. La actividad, gratuita, está dirigida a mayores de 12 años.

## Olentzeroren eta Maridomingiren telefono deia jaso nahi al duzu?

APILLek bultzatu duen kanpaina honen bidez Olentzero eta Maridomingi Laudioko haurrekin harremanetan jarriko dira telefonoz, zer nahi duten entzuteko. Parte hartzen duten establezimenduek bezeroen artean banatuko dituzte deiak jasotzeko kupoiak. Deiak abenduaren 23ra arte egingo dira. Ekimena Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak babesten du.
Laudioko saltokiren batek parte hartu nahi badu, APILLekin jarri behar da harremanetan 946722801 telefono-zenbakira deituz edo apill@laudiocomercial.com helbide elektronikora idatziz. Izena emateko epea abenduaren 1ean amaituko da.

## ¿Te gustaría recibir la llamada de Olentzero y Maridomingi?

A través de esta campaña que ha impulsado APILL, Olentzero y Maridomingi se pondrán en contacto por teléfono con los niños y niñas de Laudio para escuchar sus deseos. Los establecimientos participantes repartirán entre sus clientes los cupones de llamada. Las llamadas se realizarán hasta el día 23 de diciembre. La campaña está patrocinada por el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno Vasco.
Si algún comercio de Laudio está interesado en participar, debe ponerse en contacto con APILL en el teléfono 946 722 801 o en el email: apill@laudiocomercial.com. El plazo de inscripción finaliza el 1 de diciembre. emateko epea abenduaren 15era izango da, eta onartuen zerrendak abenduaren 17an argitaratuko dira. 12 urtetik gorakoentzat zuzenduta. Musutruk.



# EKONOMIA/ ECONOMÍA

## SARTU LAUDIOKO IKASTARO BERRIAK
## NUEVOS CURSOS DE SARTU LLODIO

### BILTEGIKO JARDUERA LAGUNGARRIAK
### ACTIVIDADES AUXILIARES DE ALMACÉN

Non: Sartu Laudio
Dónde: Sartu Laudio
Data: abenduaren 20tik 2022ko otsailaren 20ra
Fecha: del 20 de diciembre l 20 de febrero de 2022
Ordutegia: astelehenetik ostiralera. 09:30etatik 15:00k arte
Horario: de lunes a viernes de 09:30 a 15:00
Talde hartzailea: langabeak
Colectivo destinatario: desempleado/as
Plaza-Kopurua:15
Nº de plazas: 15

### MENDEKO PERTSONEI GIZARTE-ERAKUNDEETAN GIZARTE- ETA OSASUN-ARRETA EMATEA
### ATENCIÓN SOCIOSANITARIA A PERSONAS DEPENDIENTES EN INSTITUCIONES SOCIALES

Non: Sartu Laudio
Dónde: Sartu Laudio
Data: abenduaren 28tik 2022ko martxoaren 27ra
Fecha: del 28 de diciembre al 27 de marzo de 2022
Ordutegia: astelehenetik ostiralera. 09:30etatik 14:30k arte
Horario: de lunes a viernes de 09:30 a 14:30
Talde hartzailea: langabeak
Colectivo destinatario: desempleado/as
Plaza-Kopurua:15
Nº de plazas: 15

### ELEKTRODO ESTALIZKO ETA TIG BIDEZKO SOLDADURA
### SOLDADURA CON ELECTRODO REVESTIDO Y TIG

Non: Sartu Laudio
Dónde: Sartu Laudio
Data: abenduaren13tik 2022ko ekainaren 15era
Fecha: del 13 de diciembre al 15 de junio de 2022
Ordutegia: astelehenetik ostiralera. 15:00tatik 20:30k arte
Horario: de lunes a viernes de 09:30 a 15:00
Talde hartzailea: langabeak
Colectivo destinatario: desempleado/as
Plaza-Kopurua:15
Nº de plazas: 15



## Lanbidek beste laguntza-sorta bat jarri du martxan Aiarako Kuadrillan, enpresa-jarduera berrietarako

Lanbidek, Euskal Enplegu Zerbitzuak, Laudio Hazirekin eta Aiarako Kuadrillarekin lankidetzan, enpresa-jarduera berrietarako laguntza-sorta berri bat kaleratu du. Enpresa bideragarritasunerako plana duten eta 3 hilabetez era esklusiboan proiektua martxan jartzen lan egiteko konpromisoa hartzen duten pertsona ekintzaileek jaso ahal izango dute 1.500 eurokoa den laguntza.
Gainera, negozio-ideia bat duten eta bi hilabetez era esklusiboan euren bideragarritasuna aztertzen eta enpresa-plana prestatzen jarduteko konpromisoa hartzen duten enpresa-ideia berrien sustatzaileentzat, Lanbidek 1.000 euroko bigarren laguntza jarri du martxan.
Bi kasuetan, laguntzak % 15 handituko dira laguntza-prozesua hasteko unean sustatzailea 18 urtetik gorakoa eta 30 urtetik beherakoa bada, eta beste % 15 emakumea bada. Deialdietara aurkezteko epea abenduaren 10ean amaituko da. Interesdunak Laudio Hazirekin harremanetan jar daitezke garapenagentzia@laudio.eus helbide elektronikora idatziz edo 944 034 980 telefono-zenbakira deituz.

## Lanbide lanza un nuevo paquete de ayudas en la Cuadrilla de Ayala para nuevas actividades empresariales

Lanbide, el Servicio Vasco de Empleo, en colaboración con Laudio Hazi y la cuadrilla de Ayala, ha lanzado un nuevo paquete de ayudas para nuevas actividades empresariales. Se podrán beneficiar las personas emprendedoras que dispongan de un plan de viabilidad empresarial y se comprometan a dedicarse, en exclusiva, durante 3 meses a la puesta en marcha del proyecto. La ayuda asciende a 1.500 euros.
Además, y para las personas promotoras de nuevas ideas empresariales, con una idea de negocio y que se comprometan a dedicarse en exclusiva durante 2 meses al análisis de su viabilidad y elaboración del plan de empresa, Lanbide ha puesto en marcha una segunda ayuda de 1.000 euros.

## Udalak herritarrei irekita egongo den jardunaldi bat deitu du Antzokiaren proiektua aurkezteko

Antzokiaren proiektuaren idazketa amaitu ondoren, Udalak herritarrei aurkeztu nahi die, denek espazio berria nolakoa izango den jakin dezaten, instalazioak, eraikuntzako materialak, ingurunearekiko integrazioa eta abar. Hori dela eta, jardunaldi ireki baterako deialdia egin da, ostegunean, abenduaren 2an, 18:00etan, Kultur Etxeko Arraño Aretoan. Bertan, proiektua idatzi duen Javier de las Heras arkitektoak hartuko du parte. Proiektua bertatik bertara ezagutzera animatu nahi zaituztegu!

## El Ayuntamiento convoca una jornada abierta a la ciudadanía para presentar el proyecto del Antzokia

Una vez finalizada la redacción del proyecto del Antzokia, el Ayuntamiento quiere presentarlo a la ciudadanía, para que los y las vecinas conozcan cómo será este nuevo espacio, sus instalaciones, materiales de construcción, integración con el entorno, etc. Por ello, se convoca una jornada abierta que tendrá lugar el jueves, 2 de diciembre, a las 18:00 en la Sala Arraño de la Casa Cultura, y en la que participará el arquitecto redactor del proyecto, Javier de las Heras. ¡Os animamos a acercaros y conocer de primera mano el proyecto!

# BERDINTASUNA / IGUALDAD



## Aiaraldeak LGTBI+ komunitateko pertsonak bilatzen ditu, era kolektiboan irratiko podcast bat eraikitzeko

**Helburua Aiarako Koadrilako herrietako sexu- eta genero-aniztasuna erakustea da**

Abenduaren 14an eta 16an, 18:30etik 20:30era, Kultur Etxean, Lorena Rejok eta Itziar Nanclares de Ganboak emango diote aurrez-aurreko hasiera podcastari. Hainbat gai aztertuko dituzte eta euren sormena aske utziko dute guztien artean irratsaio bat eraikitzeko. Parte hartu nahi dutenek aurrez aurreko saioetara joan daitezke edo audio bat bidali WhatsApp edo Telegram bidez 649 535 213 zenbakira. Ez da beharrezkoa aldez aurretik inolako ezagutzarik izatea, partekatzeko gogoa baino ez da behar!

## Aiaraldea busca personas de la comunidad LGTBI+ para construir colectivamente un podcast radiofónico

**El objetivo es mostrar la diversidad sexual y de género de los pueblos de la cuadrilla de Ayala**

Los próximos 14 y 16 de diciembre, de 18:30 a 20:30 en la Casa de Cultura, Lorena Rejo e Itziar Nanclares de Gamboa darán inicio al podcast de manera presencial. Desgranarán diversos temas y darán libertad a su creatividad para construir un programa radiofónico entre todos y todas. Las personas que deseen participar pueden asistir a las citadas sesiones presenciales o enviar un audio por WhatsApp o Telegram al 649 535 213. No es necesario tener ningún conocimiento previo, solo se necesitan ganas de compartir!

# Zinemakumeok
# MUJERES DE CINE







**ABENDUAK 6 DICIEMBRE**

Never, Rarely, Sometimes, Always.

16 URTETIK AURRERA | A PARTIR DE 16 AÑOS
18:30 CINE FORUM. SARRERA 3€. LAUDIOALDE ZINEMA ARETOA.

**ABENDUAK 7 DICIEMBRE**

Selección cortometrajes zinemakumeok: ezer ez da berdin.

16 URTETIK AURRERA | A PARTIR DE 16 AÑOS.
18:30 CINE FORUM. SARRERA 3€. LAUDIOALDE ZINEMA ARETOA.

**ABENDUAK 8 DICIEMBRE**

TOVE

18:30 CINE FORUM, 16 URTETIK AURRERA | A PARTIR DE 16 AÑOS.
SARRERA 3€. LAUDIOALDE ZINEMA ARETOA.

# AGENDA

# TOP ZINEMA

## LAUDIOALDE ZINEMA ARETOAN




**ABENDUAK 4** DICIEMBRE
18:30 / **3€** / **APTA TODOS LOS PÚBLICOS**
**>URTZEN**

**ABENDUAK 5** DICIEMBRE
18:30 / **3€** / **6 URTETIK AURRERA**
**>TXIMINOEN IZARRA**




**ABENDUAK 9** DICIEMBRE
18:30 / **3€** / **16 URTETIK AURRERA**
**>LA INOCENCIA**
CINE FORUM

**ABENDUAK 11** DICIEMBRE
18:30 / **3€** / **7 URTETIK AURRERA**
**>ENTRE ROSAS**
CINE FORUM




**ABENDUAK 18** DICIEMBRE
18:30 / **3€** / **APTA TODOS LOS PÚBLICOS**
**>AZTARNAK**
CINE FORUM

**ABENDUAK 26** DICIEMBRE
18:30 / LABURMETRAIAK
**> La vie de Chateau** [Bizitza Versailles-en]
**> Umbrellas** [Aterkiak]
**> Pompier**




**ABENDUAK 28** DICIEMBRE
18:30 / **3€** / **APTA TODOS LOS PÚBLICOS**
**>PETITE MAMAM**

## KALEKO ANTZERKIA | TEATRO DE CALLE

**ABENDUAK 3** DE DICIEMBRE . **20.30.**
**PANOLI CABARETA (CLOWN). Ganso & Cia** (Euskadi)
**Zubiko kalean** | Calle Zubiko (peatonal).



**ABENDUAK 10** DE DICIEMBRE. **20.30.**
**LOF (DANZA COMEDIA). Cia. Eva Guerrero** (Euskadi)
**Lamuza parkean** | Parque Lamuza.




**ABENDUAK 17** DE DICIEMBRE **20.30.**
**SIN OJANA (TEATRO MALABARES).**
**Chicharrón Circo flamenco** (Andalucía)
**Oinezkoen kalean** | Calle peatonal.

## BERDINTASUN-EKINTZAK | ACTOS IGUALDAD

**ABENDUAK 4** DE DICIEMBRE
**"LUZE EDO MOTZ" ikuskizuna euskaraz.**
**18:30. Kasinoan**
Espectáculo en euskara "LUZE EDO MOTZ".
18:30. Casino




**ABENDUAK 10** DE DICIEMBRE
**"LOF. Ladies on figh" dantza-komedia.**
**20:30etan Lamuza parkean.**
**Euria egiten badu, Aldai plazan.**
"LOF. Ladies on figh" danza-comedia.
20:30 en el parque Lamuza.
Si llueve será en la plaza Aldai.







### AZAROA - NOVIEMBRE

| DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | EKITALDIA<br>ACTUACIÓN |
|---|---|---|
| **2021/11/27**<br>Larunbata/Sábado | **20:00** | *Kontzertua ARTE ON FUNDAZIOAREN eskutik*<br>*Concierto a cargo de la FUNDACION ARTE ON* |
| **2021/11/28**<br>Igandea/Domingo | **19:00** | *Kontzertua SAN ROKE MUSIKA ELKARTEAREN eskutik*<br>*Concierto a cargo de la AGRUP. MUSICAL SAN ROKE* |

### ABENDUA - DICIEMBRE

| DATA<br>FECHA | ORDUA<br>HORA | EKITALDIA<br>ACTUACIÓN |
|---|---|---|
| **2021/12/3**<br>Ostirala/Viernes | **20:00** | *Akordeoi eta piano kontzertua EZUST DUO taldearen eskutik*<br>*Concierto de acordeón y piano a cargo del grupo EZUST DUO* |

***LEKUA: Lamuzako San Pedro Parrokia***
***Laudioko Udalak Lamuzako San Pedro Parrokiaren laguntza eskuzabala eskertzen du, kontzertuetarako bere lekua lagatzeagatik***
***LUGAR: Parroquia de San Pedro de Lamuza***
*El Ayuntamiento de Laudio agradece la colaboración desinteresada de la Parroquia de San Pedro de Lamuza por ceder su espacio para los conciertos.*